



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 20a

157. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena. Eskubide Sozial-  
letako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskubide Sozialetako Batzordeak Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2018ko azaroaren 2ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **IRIZPENA**

Eskubide Sozialetako Batzordeak 2018ko abenduaren 18an eta 19an egindako bileran onetsia.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duena**

### **HITZAURREA**

Espainiako Konstituzioak zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko bat sendetsi zuen, baina etxebizitzarako eskubidea aitortzean, eta 47. artikuluan etxebizitza duin eta egokia edukitzearen beharra aldarrikatu arren, aginte publikoentzako eginkizun bat baizik ez zuen xedatu. Hartara, etxebizitzarako eskubidea ezin da ez auzibidez ez berez exigitu, ezen, nola ez dagoen oinarrizko eskubide gisa aitorturik, ez dauzka merezi dituen berme prozesal eta substantiboak.

Hala eta guztiz ere, etxebizitza egoki baterako giza eskubideak erabateko garrantzia dauka norbanakoaren gainerako eskubide ekonomiko, sozial eta kultural guztiez gozatu ahal izateko. Etxebizitza norbanakoaren egoitza da, haren

eskubide sozialen egoitza, beharrezkoa baina ez-nahikoa den egoitza bat, zeinak edozein pertsonari edo norbanakori modua ematen baitio bere burua herritar gisa eratzeko: etxebizitza da herritarrei beren burua halakotzat eratzeko eta, horrenbestez, gizarte bateko kide gisa eratzeko modua ematen diena. Etxebizitzarik gabe ez dago herritartasunik, eta herritartasunik gabe ez dago ez gizarterik, ez eta inongo estatu sozialik ere.

Etxebizitza, bizileku izaera duen heinean, elkartzen dira babeslekuaren dimentsioa eta beste dimentsio bat, intimitatearekin eta harremanekin lotuagoa, zeinetan garatzen diren gure beharrian oinarrizkoenak, segurtasunaren, afektuaren, onarpenaren eta abarren ingurukoak. Ukaezina da aterpe egoki eta segururik gabe ez dagoela behar bezalako bizi-kalitaterik, eta horrek zuzenean urratzen du osasun fisikoa eta mentala. Halaber, etxebizitzarik ez izatearen edo hura galtzearen ondorioz bizi-baldintzen narriaduraren tamainak faktore asko -bizileku eta familia-egitura gehiago sortzea, gazteen emantzipazioa edo toki-mugigarritasuna- zailtzeaz gain eraman gaitzake, azken finean, gizarte-bazterketa egoeretara. Etxebizitzak pertsona edo familia unitate bati laguntzen dio modu autonomo eta arduratsuan garatzen guztiok osatzen dugun egitura sozialari egiten dion ekarpena.

Bizi gareneko estatu sozial honek, zeinaren eraikuntza guztion egitekoa baita, gaur egun bere buruari planteatu behar dio ea beharrezkoa eta bidezkoa den etxebizitzarako eskubidea eratzea gure gizartearen beste zutabe garrantzitsu baten gisara, parekatzeko modukoa gaur egun dudagabekoak diren baina bere garaian eztabaidatuak izan ziren beste eskubide batzuekin: hezkuntza, osasuna, pentsioak edo mendekotasuna. Foru lege honek baiezkorearen aldeko apustu ausart eta tinkoa egiten du, eta saiatzen da etxebizitzarako eskubidea kokatzen politika publikoen osotasunean funtsezkoa eta nagusia den toki batean. Bada

garaia alda dezagun etxebizitza gure ongizate-estatuaren zutabe ahul (wobbly pillar, anglosaxoien literaturan) baten gisara hartzen duen ikusmoldea. Hori dela eta, foru lege honek bide zail baina guztiz beharrezko eta ausarta irekitzen du, eta administrazio publikoei erreklamatzeko modukotzat aitortzen du, esanbidez, Nafarroako Foru Komunitatean auzotasun administratiboa duen pertsona orok eskubide subjektiboa duela etxebizitza duin eta egokia edukitzeko.

Jakinda gaur-gaurkoz etxebizitza-parke publikoa ez dela nahikoa etxebizitza-behar kalkulatu asetzeko, foru lege honek xedatzen du modu subsidiarioan horren orde prestazio ekonomiko bat eman dadila, zeina errentaren gaineko zerga negatibo baten gisara tankeratzen baita, kuota diferentzialaren kenkari baten bitartez. Prestazio horrek bi modalitate dauzka: bata emantzipazioa lortzeko beharrari lotua, gazteei zuzendua eta aldi baterakoa; bestea, berriz, etxebizitza baten eskuratzea finantzatzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzeari lotua eta denboran iraunen duena, baldintzak betetzen jarraitzen diren bitartean. Eskubide bera eta bi modalitate desberdin, etxebizitza-eskatzaileen beharrizanen eta ezaugarrien arabera.

Azkenik, foru legeak eskubidearen aitorpenerako egutegi gradual bat jasotzen du, behar diren baliabide ekonomikoen, materialen eta antolamenduzkoen zuzkiduraren arabera; nolahi ere, foru lege honek indarra hartzen duen unetik ezarpen oso handia lortzea aurreikusten da.

Gainera, foru lege honek jarraipena ematen dio etxebizitzaren eginkizun sozialak itxuratzen duen eraikin juridikoa altxatzeko lanari. Eskubideak bai, baina betebeharrak ere ezartzen dituen eginkizun sozial bat.

Betebehar horien artean, nabarmentzekoa da etxebizitza babestuak alokairu turistikorako partzialki ere erabiltzearen ezinezkotasuna. Araudi indarduna behar bezain malgua da titularrek etxebizitza babestuen errentamendu-aukerei helitzearen beharrari dagokionez, baita gelakako errentamendukoei ere, baina sekula ez xedea egoitzaz bestelako erabilera bat denean, turismoa edo oporraldikoa kasu.

Jadanik badagoen etxebizitza-parkearekiko beste betebehar garrantzitsu bat da etxebizitza horiek mantendu eta zaintzearena. Eraiki orde, ahaleginak eginen dira lehendik dagoena zaharberritu, birziklatu edo biziberritzeko. Baliabideei buruz jasangarritasun-ikusmolde baten aldeko apustua egitea. Hartara, eraikin-ebaluazioko txosten bat egiteko betebeharra hedatu egiten da

familia bakarreko etxebizitzetara, eta betebehar berri hori betetzeko egutegi gradual bat ezartzen da. Eta etxebizitzaren bizigarritasun-zedulak berritzearen derrigortasuna azpimarratzearen ildotik, halakoak ez berritzea arau-haustetzat hartua izatera pasatzen da, nahiz eta, momentuz, pertsona juridikoen kasuan soilik.

Etxebizitzaren eginkizun sozial hori lortzeko, lehentasunezko helburua da bizilagunik gabeko etxebizitzak egotea ekidin dezagun. Ildo horretan, foru lege honek kontzeptu batzuk argitzen ditu, esate baterako aisialdi eta jolaserako etxebizitza, etxebizitzak hustzat deklaratzeko prozedura errazten du, gainera, sustapenerako neurri batzuk ezarri, etxebizitzaren zaharberritze babestua lortzera bideratuak, eta Etxebizitza Hutsen Erregistroa sartu du jadanik dagoen Etxebizitzaren Erregistroan. Hori guztia errazte aldera dagozkion legezko aurreikuspenak aplikatzea lege honek indarra hartzen duenetik legezko aurreikuspenak aplikatzea”.

Bestetik, etxebizitza babestuen eskualdatzearen kasuan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lehentasunez eskuratzeak daukan eskubidearen baliatzea errazte aldera, ahalmena ematen da etxebizitza-eskatzailea balizko erosle gisa izendatzeko, etxebizitzaren arloan eskuduna den departamentuak beharrezkotzat jotzen duenean hori, dela merkatuko beharrizanengatik, dela gehiegizko prezioen balizko jasotzea ekiditeko.

Etxebizitza babestuaren titulartasunak babes hori gauzatu beharra dauka merkatu librean daudenez haragoko onuretan eta prerrogatibetan. Onura horietako bat izanen da hipoteka-betearazpenak nozitzeko zailtasuna, noiz eta, etxebizitza babestua galtzeaz gainera, etxebizitzaren titular den pertsonak edo famili unitateak zor bat edukitzen jarraitzen duen, halako moduz non, praktikan, ezinezkoa baitzaio berriro hutsetik abiatzea. Ordainean ematearen bidez eskuratutako etxebizitzaren kasuan baizik ez du titular berriak eskubidea edukiko etxebizitza babestua orokortasunez ezarritako gehieneko prezioen berriro ere eskualdatzeko. Bestela, haren gehieneko prezioa % 50 jaitsiko da.

Azkenik, gure foru erkidegoaren esparruan etxebizitzaren arloko politiken kudeaketa eta erregulazio hobea lortzen lagunduko duten bi berritasun garrantzitsu.

Lehenbizi, zaharberritzerako laguntzen plangintza eta mailakatzea egiteko tresnak oinarritu beharra Nafarroako eremu desberdinetako premietan; eraikuntza-premietan ez ezik, ekonomikoetan eta sozialetan ere. Honakoa izanen da

helburua: eremu behartsuen mapa bat edukitzea, politika publikoetarako gida moduan balioko duena etorkizunean.

Eta, bigarrenik, adierazle berria erabiltzea etxebizitza eta zaharberritze babestuaren arloko baliabideen eskuraketarako oinarritzko adierazle ekonomiko gisa erabili den Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoaren orde: Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA). Adierazle berri horrek gaurkotze nabarmena dakar, eta Nafarroako ekonomiaren datu objektiboetan oinarritutako adierazlea da.

Aurreko guztia ahalbidetzeko, foru lege honek lau artikulua, xedapen gehigarri bat eta bi azken xedapen ditu bere edukia garatzeko.

**1. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. Beste artikulua bat, 3. bis artikulua, sartzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“3. bis artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta interes orokorreko zerbitzu soziala.

1. Nafarroan errolatuta dagoen pertsona orok eskubidea du tamainari eta kalitateari dagokienez etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eta hartaz bakean gozatzeko. Etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten Nafarroako administrazio publikoak eskubide hori gauzatzeaz eta babesteaz arduratuko dira.

2. Etxebizitza eskuragarri ez badago, eskubide horren gauzatzea bermatuko da errentamenduagatik kenkari fiskalen sistema baten bitartez; kenkari horiek aurrez ordainduko dira, foru lege honetan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginean ezarritakoari jarraituz.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zuzenean exigitu ahalko zaio aurreko apartatuetan aurreikusitako eskubidearen gauzatzea.

4. Etxebizitza duin eta egokirako eskubidearen gauzatzea eta babesa ahalbidetzera zuzendutako jarduera oro interes orokorreko zerbitzu sozialtzat joko da”.

Bi. 3. ter artikulua bat gehitzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“3. ter artikulua. Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA).

Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) izeneko adierazlea sortzen da, eta honako balio hau izanen du:

a) 2017ko ekitaldi fiskalerako: 8.120. euro.

b) 2018ko ekitaldi fiskalerako: 8.266,16. euro.

c) Hurrengo ekitaldi fiskaletarako, haren zenbatekoa urtero eguneratuko da urtarrilean; horretarako, honako hauen arteko balio handiena hartuko da: aurreko urtean Nafarroako Kontsumoko Prezioen Indizeak (KPI) izandako urteko batez besteko igoera, eta Nafarroako batez besteko soldatena, halakoak kalkulatu datu eskuragarriak dituzten azken lau hiruhilekoetako Lan Kostuari buruzko Hiruhileko Inkestako soldata-kostu arruntaren arabera. Balio berria etxebizitzaren arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko titularraren ebazpen baten bidez onetsiko da, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da”.

Hiru. 3. quater artikulua bat gehitzen da, eta honela geratuko da idatzita:

“3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema.

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalek, foru lege honen 3. bis artikulua 2. apartatuak aipatutakoek, honako modalitate hauek edukiko dituzte:

a) Emantzipaziorako errentamenduagatik kenkaria: Nafarroan errolatutako 23 eta 30 urte artekoentzat (biak barne) izanen da, baldin eta haien errentak, salbuetsiak barne, ez badira 20.000 euro baino gehiagokoak, eskatzailea familia-unitate bateko kidea ez izanez gero; edo, bestela, 30.000 euro baino gehiagokoak ez badira, familia-unitateko kide guztien errentak batera hartuta.

Horretarako, kontuan hartuko da zein diren lortutako diru-sarrerak, adieraziak zerga-oinarriaren zati orokorraren eta errenta salbuetsien batura gisa, halako zergaldian lorturikoak non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epe arrunta amaitu baita kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaera eginiko datan.

b) Etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatik kenkariak: Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,7 halako baino familia-dirusarrera haztatu txikiagoak dituzten pertsonentzat edo familia-unitateentzat, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a') Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan inskribaturik egotea urtebeteko edo gehiagoko antzinatean etengabearekin, urte natural

bakoitzaren urtarrilaren 1ean, errentamenduaren edo erosketa-aukeradun errentamenduaren modalitatean; hori ez da eragozpena izanen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren hogeita zazpigarren xedapen iragankorrean 2019. eta 2020. urteetarako ezarritakorako.

b') Gizarteratze-etxebizitzaren Programako onuradunak izatea, errentamenduan, bi urteko edo gehiagoko antzinasunarekin, urte natural bakoitzaren urtarrilaren 1ean.

Diru-sarrerak eta haien haztatzea kalkulatzeko, aplikatuko da Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren II. eranskinean, edo haren ordezkio arauan, xedatutakoa, eta kontuan hartuko zer errenta izan diren lortuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epea kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaeraren datan amaitu deneko zergaldian.

2. Kenkari bakoitzaren baldintzak eta zenbatekoak, bai eta haiek modu aurreratuan ordaintzeko ezartzen diren epeak ere, modalitate bakoitzean desberdinak izan ahalko dira, bai eta modalitate beraren barruan desberdinak ere.

3. Kenkari-modalitate desberdinak elkarrekin bateraezinak izanen dira; halaber, bateraezinak izanen dira honako hauekin: etxebizitza alokatzeagatiko kenkariarekin, zeina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.2 artikuluan ezarrita baitago; Nafarroako Gobernuak alokairu-gastuen ordainketarako emandako larrialdiko laguntzekin edo laguntza berezietan, etxebizitza berari dagozkionean; eta etxebizitza babestuak edo Alokairu Poltsari atxikitakoak errentamenduan hartzeko aurreikusitako diru-laguntzekin.

4. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema kudeatuko da etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua kudeatuko duen sozietate publiko instrumental beraren bidez. Aurrekoa gorabehera, etxebizitzaren gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusiari dagokio kudeaketaren ondoriozko egin-tzak eta ebazpenak ematea”.

Lau. 8. artikulua 1. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“1. Etxebizitza babestuak bizileku ohiko eta iraunkor gisa erabiliko dira. Inolaz ere ez da onartuko etxebizitza edo haren geletakoren bat bigarren etxebizitzarako edo turismo-egonaldirako erabiltzea.

Etxebizitza babestuak behin betiko kalifikazioa eman eta gehienez sei hilabetera okupatu behar-

ko dira, salbu eta jabetzaren eskualdatzea hiru hilabete baino gehiagoz atzeratzen bada, eta hori sustatzaileari edo erosleaz nahiz esleipen-hartzaileaz bestelako pertsona edo entitate bati egotzi beharreko arrazoiengatik izan bada.

Etxebizitza babestu bat alokairuan hartzen bada edo bigarren nahiz ondorengo eskualdatzean bidez erosi bada, bai eta etxebizitza babestuaren salerosketarako kontratuaren izenpetzea behin betiko kalifikazioaren ondorengo den kasuetan ere, etxebizitza okupatzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, kontatzen hasita alokairu kontratua sinatzen den egunetik edo salerosketa kontratuaren eskritura publikoa egiten den egunetik aurrera”.

Bost. 15. artikulua 2. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Nafarroako Gobernuak hobekuntzen malgutasuna eta progresibitatea irizpideharturik arautuko ditu zaharberitzekoak diren etxebizitzetakoak zaizkien baldintzak, oinarrizko legeria aplikagarriak baimentzen dituen mugen barnean. Etxebizitzaren parkearen mapa bat eginen da, eraikuntza-irizpideetan eta irizpide sozioekonomikoetan oinarrituta, eta lehentasuna eman ahalko zaie eremu behartsu gisa edo larrialdiko zaharberitzearen premia duen eremu gisa aurreko sailkapenaren arabera deklaraturakoei”.

Sei. 21. artikulua 3. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“3. Genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen dira Nafarroako Gobernuaren departamentu eskudunak gai horri buruzko legeria espezifikoak aplikatuz halakotzat aitortzen dituen pertsonak. Erregelamenduz arautuko dira pertsona horiek jabetza edo errentamendua eskuratu ahal izateko inguruabarrak. Aurrekoa gorabehera, jabetza araubideko etxebizitza babestuak lortu ahal izateko, beharrezkoa izanen da edozein organo jurisdikzionalen epai irmoa egotea, pertsona hori genero-indarkeriaren biktima izan dela deklaratzeko duena. Epai hori emana izan beharko da genero-indarkeriaren biktima etxebizitzaren esleipen-hartzaile suertatzen den esleipen prozedura hasi aurreko bost urteen barruan. Genero-indarkeriaren biktimen familia-dirusarrerak haztatzeke orduan, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten edo 65 urte baino gehiagokoak diren pertsonen aplikatzekeoak zaizkien xedapen berak”.

Sei bis. 31. artikulua beste idatz-zati bat, 9.a, gehitzen zaio. Hona:

“9. Sistema bat jarriko da, esleipenerako prozeduran parte hartzeko eskubidea duten eska-



tzaileek aukeratu ahal izan dezaten zein sustapen zehatz edo zehatzak hautatu nahi duten, aldez aurretik sustapen horien eskaintzaren gaineko azalpen zehatza emanda.

Salerosketa-araubideko etxebizitza babestuen esleipen-prozesuan bakarrik hautatzen ahalko dute aldez aurretik eskatzaileak aukeratutako sustapen zehatz bat edo batzuk”.

Zazpi. 34. artikuluari 7. eta 8. apartatuak gehitzen zaizkio; apartatu horiek hurrengo testua izanen dute:

“7. Etxebizitza-tipologia duten eraikinetan kokatutako higiezin jabeek, eraikinak aldi berean beste erabilera batzuk izanda ere, frogatu beharko dute higiezin horiek zein egoeratan dauden, gutxienez ere eraikinaren kontserbazio-egoerari dagokionez eta irisgarritasun unibertsalari buruzko araudi indarduna betetzeari dagokionez, bai eta haien efizientzia energetikoko graduari dagokionez ere, eraikinen ebaluazio-txostenaren bitartez, zeina araututa baitago azararen 12ko 108/2014 Foru Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan.

Betebeharra familia bakarreko etxebizitzetara ere hedatuko da, halakotzat ulerturik isolatuta daudenak edo horizontalki atxikita daudenak, nahiz eta azken horiek sestra azpiko solairuan garajeak edo trasteleku mankomunatuak partekatu, baldin eta 75 urte edo gehiagoko antzinatasuna badute, foru lege honen hamahirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako egutegiari jarraituz.

8. Edozein etxebizitzaren bizigarritasun-zedula emateko edo berritzeko, eraikinen ebaluazio-txostena eduki beharko da, gai edo gai akats arinekin emaitza duena, hura eskatzekoa denean eta eraikina familia unitate, pertsona fisiko edo juridiko bakar baten jabetzakoa denean”.

Zazpi bis. 42.bis artikuluaren 3. apartatuak honako testu hau izanen du:

“3. Honako hauek ez dira etxebizitza hustatzeko joko:

a) Ohiko etxebizitzak. Izaera hori ulertuko zaie titularren ohiko bizileku iraunkorra direnei, halakotzat deklaritzen direlako pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko aitorpenik ez badago, titularren erroldako bizitoki gisa agertzen direnak, Nafarroako udalerrri batean.

b) Pertsona fisikoen etxebizitzak, aisialdi edo jolaserako erabilera dutenak. Halakotzat jotzen dira titularraren bigarren bizitokia direnak. Ondorio

horietarako izaera hori izanen du bakar bakarrik etxebizitza batek pertsona edo familia unitate bakoitzeko. Pertsona edo familia unitate bat bi etxebizitzaren titularra bada, ulertuko da aisialdi edo jolaserako erabilera etxebizitza dela aurreko puntuari jarraikiz ohiko etxebizitzaren izaerarik ez duena. Pertsona edo familia unitate bat hiru etxebizitzaren titularra bada, ulertuko da aisialdi edo jolaserako erabilera etxebizitza dela ohiko etxebizitzaren izaerarik ez dutenetatik katastrobalio handiena duena.

c) Turismoaren arloko legedian araututako erabilera baterako eraikinak, kasuko hirigintza lizentziak eta irekitzeko lizentziak badituzte, turismoaren arloko lege indardunetan eta kasuan kasu aplikatzekoak diren gainerako baimen sektorialetan exijitzen diren baldintzez gainera.

d) Sasoika eginiko errentamendua tarteko, hiri finken moduan egiazki erabiltzen diren etxebizitzak, dela udaldietarako, dela beste edozein aldirarako, bai eta kasuko finkan industria, merkataritza edo artisautza jarduera bat edo jarduera profesional bat edo josteta, laguntza, kultura nahiz irakaskuntza jarduera bat gauzatzeko eginiko kontratua dutenak ere, betiere jarduera horietan aritzeko behar diren lege baldintzak betetzen badira eta, gutxienez ere, urtebetean hogeita hamar egun baino gutxiagokoa ez den okupazioa badute.

e) Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo dauden etxebizitzak”.

Zazpi ter. 42. quater artikuluaren 1. apartatuak honako testu hau izanen du:

“1. Pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, behartuta egonen dira Foru Komunitateko Administrazioari ematera, bai eta etxebizitzak ezarrita dauden lekuko toki entitateei ere, dagozkion eskumenak eskuordetuta badituzte, haietako edozeinek eskatuta, etxebizitza hutsen edo egoera horien ardura duten pertsonen edo entitateen azterketan, zuzenean nahiz zeharka eragin lezaketan inolako datu, txosten, aurrekari eta egiaztagiria. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartuta egonen da etxebizitzak ezarrita dauden lekuko toki entitateei ematera, dagozkion eskuordetza lortu badute, etxebizitza hutsen edo egoera horien ardura duten pertsonen edo entitateen azterketan, zuzenean nahiz zeharka eragin lezaketan inolako datu, txosten, aurrekari eta egiaztagiria”.

42. quater artikuluaren 5. apartatuak honako testu hau izanen du:

“5. Ur, elektrizitate eta gas zerbitzuen hornidurarako konpainiek, etxebizitzaren arloko departa-

mentu eskudunak edo etxebizitzak ezarrita dauden lekuko toki entitateek, dagozkion eskumenak eskuordetuta badituzte, halakorik eskatzen dutenean, bidaliko dute behar den informazioa –ukitutako pertsonen adostasunik gabe ere eta datuen babesari buruzko arauetan ezarritakoari loturik–, eskarian zehaztuko diren etxebizitzek dauzkaten batez besteko kontsumoei dagokienez. Eskatzen badira, berariaz adierazitakoez beherako kontsumoak dituzten etxebizitzen edo etxebizitza-multzoen zerrendak bidaliko dira, zerrenda horietan jasotako etxebizitzak kokatuta daudeneko bide, kale edo plazaren izena adierazita, eta zehaztuz, halaber, kontratuaren eta etxebizitzaren titularraren izen-abizenak edo sozietate-izena, bai eta pertsona titularraren helbidea eta IFZa edo sozietatearen IFKa ere. Horretarako, aipatutako departamentuaren edo toki entitatearen eskaria izan ahalko da kokapen zehatzei buruzkoa, kale, bide edo haien multzo bati buruzkoa edo grafikoki nahiz deskriptiboki berariaz mugatutako esparruei buruzkoa”.

42. quater artikulua 7. apartatuak honako testu hau izanen du:

“7. Urtean behin, urte bakoitzaren abenduaren 31ko datuekin, eta Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak eskatuta noiznahi, finantza-entitateek eta haien higiezin-filialek, aktiboan kudeaketarako entitateek –banku-berregituratuetik heldu direnak barne– eta higiezin-entitateek, edozein dela ere haien helbide soziala, informazioa bidaliko dute –ukitutako pertsonen adostasunik gabe ere eta datuen babesari buruzko arauetan ezarritako terminoetan–, ondorio hauetarako finkatzen den esparru zehatzari dagokionez, hutsik dauden beren titulartasuneko etxebizitzei buruz, eta haietarako bakoitzaren kasuan, honakoak adieraziko dituzte: kokaleku zehatza, katastroko erreferentzia, finkak erregistroan duen zenbakia, izena, abizena, sozietate-izena, IFZa edo IFKa. Etxebizitza babestua baldin bada, berariaz zehaztu beharko da hori, kalifikazioari buruzko espediente-zenbakia adierazita. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak jasotako informazioa ematen ahalko die toki entitateei, dagozkion eskumenak eskuordetuta badituzte, etxebizitzak ezarrita dauden lekuari buruz”.

42. quater artikulua 8. apartatuak honako testu hau izanen du:

“8. Artikulu honetan aipatzen diren komunikazioak hogeita hamar eguneko epean igorri behar diren departamentu edo toki entitate eskatzaileari, informazio-eskaria jasotzen denetik edo aurreko apartatuan adierazten den datatik hasiz kontatuta”.

Zazpi quater. 42. quinquies artikulua honako testu hau izanen du:

“1. Etxebizitza bat hutsik dagoela deklaratzeko prozedura hasteko, izapidetzeko eta ebazteko eskumena etxebizitzaren arloko departamentu eskudunari dagokio. Eskumen hori, aurrez eskatuta, eskuordetu ahalko zaie hura baliatzeko behar adina baliabide dituztela ziurtatzen duten toki entitateei. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak eskumena izanen du, nolana ere, kasuan-kasuan instruitzen diren zehapen-prozedurak hasi, izapidetu eta ebazteko.

2. Prozedura aurrera eramanez da erregistroko titularraren den pertsonarekin edo, hura ez badago, etxebizitzaren edo etxebizitza-multzoaren katastro-titularraren den pertsonarekin. Halaber, pertsona interesduntzat hartuko dira, kasua bada, eskubide errealean eta egoera juridikoen titularrak, Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta ohar bidez jasotakoak; hori, halere, ez da eragozpena izanen eskubide edo interes legitimoen titularrei komunikazioak bidaltzeko.

3. Etxebizitza edo etxebizitza-multzoa pro indiviso araubidean pertsona titular batzuen edo nortasun juridikorik gabeko erkidego edo entitate batena baldin bada eta haren lege-ordezkaria zein den ez bada ezagutzen, pro indiviso-ko titularretako bakoitza eta erkidegoa osatzen duten pertsonetako bakoitza, daukan erantzukizun solidarioari erreparatuta, ordezkari joko da, prozedura hau izapidetzearen ondorioetarako; hori, halere, ez da eragozpena izanen gainerako kotitularrei edo erkidegoko pertsonen komunikatzeko.

4. Prozedura hasiko da etxebizitzaren arloko departamentu eskudunaren organo egokiaren edo, kasua bada, toki entitatearen erabakiaren bidez.

5. Kontradikzio-prozedurari hasiera emateko erabakian, etxebizitza hutsik egoteari buruzko aztarnak zehaztuko dira, hain zuzen prozedura irekitzeko bidea ematen dutenak, bai eta titularrari edo titularrei eskaintzen zaizkien sustapen neurriak ere, haiei etxebizitza errentan ematea edo haren zaharberritze babestua erraztera bideratutak, eta entzute-tramiteari hasiera ematen zaio, hura jakinarazten denetik hamar eguneko epe horretan interesdunek komenigarritzat jotzen dutena alegatu ahalko dute eta egokitzen jotzen dituzten probak aurkeztu edo proposatu ahalko dituzte.

6. Interesdunek egiaztatzen edo justifikatzen badute etxebizitza hutsik egoteari buruzko aztarnarik ez dagoela kontradikzio-prozedura hasteko arrazoiak ematen duenik, amaitze-ebazpena ema-

nen da, eta ildo horretatik egindako alegazioak baietsiko dira; gero prozedura artxibatzeke aginduko da.

7. Alegaziorik aurkezten ez bada edo interesdunen alegazioek prozedura hastea eragin zuten aztarnak, etxebizitza hutsik egotearenak, aldarazten ez badituzte, eta sustapen-neurriak onartzen ez badira, etxebizitza hutsik deklaratzeko duen ebazpena emanen da, eta hura Etxebizitza Hutsen Erregistroari jakinaraziko zaio, haren inskripzioa egin dezan.

8. Etxebizitzaren errentamendua erraztera bideratutako sustapen neurri bat edo batzuk onartzen badira eta hiru hilabeteko gehieneko epean etxebizitzan egiazki bizitzeko konpromisoa baldin badago, prozedura eteteko ebazpena emanen da ebazpenaren gehieneko epea zenbatzearen eraginetarako.

9. Etxebizitzaren zaharberritzea erraztera bideratutako sustapen neurri bat edo batzuk onartzen badira eta hiru hilabeteko gehieneko epean etxebizitzaren zaharberritze babestuaren behin-behineko kalifikazioa eskatzeko konpromisoa baldin badago, prozedura eteteko ebazpena emanen da ebazpenaren gehieneko epea zenbatzearen eraginetarako.

10. Etxebizitzan sei hilabetetik gorako epean egiazki bizi izan dela edo zaharberritze babestuen behin-behineko kalifikazioaren eskaera egin dela ziurtaturik, prozedura artxibatzeke ebazpena emanen da. Hala egiten ez bada, aurreko apartatuetan adierazitako epeak iragan badira jabeak komunikatu gabe egiazko bizitzearen egoera hasia dela, edo bizitze-aldi hori sei hilabetekoa baino laburragoa bada, edo etxebizitzaren zaharberritze babestuaren eskaera aurkeztu ez bada, prozedura berriz abiatuko da, eta etxebizitza hutsik dagoela deklaratzeko duen ebazpena emanen da, eta ebazpen horren berri Etxebizitza Hutsen Erregistroari emanen zaio, haren inskripzioa egin dezan.

11. Etxebizitza bat hutsik dagoela deklaratzeko kontradikzio-prozedura ebazteko eta haren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, ireki zenetik kontatzen hasita. Hura iraganda, iraungi eginen da”.

Zazpi quinquies. 42. sexies artikulua honako testu hau izanen du:

“1. Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzen da, foru lege honetan aurreikusitako kasuak gertatzeagatik hustzat deklaratu diren etxebizitzak kontrolatzeko eta jarraitzeko tresna gisa. Erregistro horretarako sarbidea izanen dute etxebizitzak hu-

tsik daudela deklaratzeko ebazpenek, bai eta huts-egoeran eragina duten jarduketak edo inguruabarrak islatzen dituzten bestelako ebazpenek ere.

2. Etxebizitzen arloko departamentu eskudunak Etxebizitza Hutsen Erregistroa egiazki eratzeko berarekin ekarriko du titulartasun publikoko datu-fitxategi bat sortzea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudian aurreikusitako ondorioetarako, betiere horrelako fitxategiak sortzeari buruz araudi indarduneari ezarritakoari jarraituz.

3. Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean sartzen da, eta haren antolaketa eta funtzionamendua foru lege honen VII. tituluaren xedutakoak arautzen ditu, titulu honetan jasotako espezialitateak ezertan kendu gabe.

4. Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroko inskripzioak honako eragin hauek izanen ditu:

a) Kasuko udaleko etxebizitza hutsen erroldan sartzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean jasotako aurreikuspenen arabera.

b) Oinarria izatea da kasuko zehapen- edo desjabetzapen-espeditatea irekitzeko, hala dago-kionean.

c) Informazioa eta estatistika-datuak ematea politika publikoen zerbitzuan den informazio-tresna gisa balio dezan.

5. Etxebizitza baten Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroko inskripzioa deuseztatzeko aurrez eskatuko da ziurta dadila hartan egiazki bizi izan dela sei hilabetez, etenik gabe. Etxebizitzan egiazki bizitzen dela ziurtatzen ez bada, interesdunari 10 egun baliouduneko entzunaldi-epea emanen zaio; epe hori iraganik, ebazpena emanen da inskripzioa mantentzeko edo, kasua bada, deuseztatzeko, eta Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroari igorriko zaio.

Erregistro edo katastroetako titularren erantzukizuna izanen da inskripzioan jasotako datuetan eragiten duen edozein aldaketa jakinaraztea, edo Erregistroko inskripzioa bera, eta gertatutako aldaketa ziurtatzen duten dokumentuak edo frogak aurkeztu beharko dira.

6. Egiaztatze- eta kontrol-jarduerak, etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak hutsik dauden etxebizitzak badaudela zehaztearen eraginetarako; eta, ezertan kendu gabe hala eskatzen duten toki entitateei eskuordetza ematea, eginen dira etxebizitzaren arloko kontrol eta ikuskapenerako biurteko planean ezartzen den plangintzaren arabera”.



Zortzi. 49. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, testu hau izanen du:

“49. artikulua. Lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak.

1. Salmenta prezioa eta errenta mugatuak dituzten etxebizitza babestuetan eta, orobat, haien eranskinetan, Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen ahalko ditu bizien artean egiten diren kostu bidezko lehenengo eta ondorengo eskualdatzeetan.

2. Horretarako, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak zilegi izanen du eskubide horietaz baliatuta lortutako etxebizitzaren onuradun gisa izendatzea sozietate instrumental bat, erakunde publiko bat edo etxebizitza babestuaren eskatzaile den pertsona edo familia-unitate bat, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuan izena emanda dagoena edo etxebizitza babestua desegokia izateagatiko esleipenerako prozeduran eskatzaile dena.

3. Eskubide horiek egoki erabiltzeko eta lehentasunez erositako etxebizitzak gero esleitzeko, Nafarroako Gobernuari eskaintzen zaizkion edo hari eskualdatu nahi zaizkion etxebizitzak errentamenduetatik edo edozein erabilera-lagapenetatik libre egon beharko dira”.

Bederatzi. 50. artikulua 4. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“4. Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak lehentasunez erosteko eskubidea edo atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen baldin badu, eskubide hori erabiltzeko egintzan zehaztuko du etxebizitzaren onuradun gertatzen den sozietate instrumentala, erakunde publikoa edo familia-unitatea eskuratzeko prezioa ordaintzeaz arduratu beharko dela, zenbateko hori etxebizitzaren eta, halakorik baldin badago, eranskinen saltzaileari zuzenean ordainduz”.

Hamar. 64. artikulua 9. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“9. Etxebizitza babestuen errentamendurako kontratuak ez aurkeztea bisatzeko, horretarako ezarritako epean”.

Hamaika. 65. artikulua 2. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Etxebizitza babestuen jabeai eta errentariei ezarritako betebeharren betetzea egiaztatze aldera Administrazioak egindako errekerimenduei ez erantzutea”.

Hamabi. 65. artikulua 28., 29., 30., 31., 32. eta 33. apartatuak gehitzen zaizkio; apartatu horiek hurrengo testua izanen dute:

“28. Etxebizitza baten publizitatea egitea haren salerosketarako edo errentamendurako, etxebizitza babestua dela zehaztu gabe.

29. Etxebizitza babestu baten publizitatea egitea haren salerosketarako edo errentamendurako, baimendutako gehienekoa baino goragoko prezioarekin.

30. Etxebizitza babestu baten edo haren geletakoren baten alokairuari buruzko publizitatea egitea, egonaldi turistikoetarako.

31. Etxebizitza babestu bat edo haren edozein gela erabiltzea egonaldi turistikoetarako alokairurako.

32. Iraungitako bizigarritasun-zedularen berri-tzea ez eskatzea, pertsona juridiko batek jabari osoa, partaidetzaren gehiengoa edo erabilera nahiz gozamenerako eskubide erreal bat dueneko etxebizitzaren kasuan.

33. Eskubide ekonomikoak, babes eskubideak edo bizigarritasun eskubideak aitortzen dituen ebazpen administratibo bat lortzeko behar diren dokumentu edo ziurtagiriak faltatzea, arau-hauleen edo hirugarren batzuen aldeko egintza bat lortze aldera, exekuzio agindu bat edo interesdunen aldekoa ez den beste egintzaren bat saiheste aldera edo foru lege honetan jasotako sustapen neurriak lortze aldera”.

Hamahiru. 66. artikulua 2. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Foru lege honetan ezarritakoaren aurka, ez aurkeztea behin betikoz errentamendu-araubidean kalifikatuta dagoen etxebizitza babestu baten errentamendu-kontratua, bisatu dadin, kontratu bat izenpetu ahal denetik aurrerako hiru hilabete-ko epean, arrazoi justifikatu batengatik ez bada”.

Hamalau. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Foru lege honen 17., 18., 20. eta 23. artikuluetan eta III. titulu III. kapituluaren agertzen diren ehunekoak, diru zenbatekoak eta epeak erregelamendu bidez berrikusten ahalko dira, eskariaren bilakaera egiaztatuari, gastu-aurrekontuaren egoerari, ondusun higiezinaren merkatuaren egoerari eta Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsuak emanda-ko informazioari lotutako faktoreen arabera.

Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu baten bidez aldatu ahalko dira foru lege honen 3. bis artikuluan aurreikusitako kenkariak aldeztetik ordaintzeko portzentajeak, zenbatekoak eta epeak, bai eta haietarako irispidea izateko gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerei buruzko baldintzak eta etxebizitzaren errentamenduagatik ordaindutako hileko errentaren gehieneko zenbatekoa ere”.

**Hamabost.** Hamaikagarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestuak ordainean ematea eta salmentaren gehieneko prezioa bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan.

Salbuespen bezala, etxebizitza babestuen titular izan ahalko dira etxebizitza horiek eskuratu dituzten pertsona juridikoak, eskuratu badituzte lehengo jabeak hipoteka-kreditu edo -mailegu baten ordainetan emanda, hipoteka-subrogatiodun salerosketa baten bitartez edo gisako negozio juridiko baten bidez. Titular horiek foru lege honetan ezarritako betebeharrak izanen dituzte, etxebizitza horiek eskualdatzeari edo errentan emateari dagokionez”.

Hipoteka-betearazpeneko prozedura baten ondorioz eskuratutako etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioa % 50 jaitsiko da hurrengo eskualdatzerako, etxebizitza babestuen bigarren edo ondorengo eskualdatzeetarako gehieneko prezio indardunarekiko. Halaber, gehieneko salmenta-prezioaren gutxitze horri eutsiko zaio betearaztea ekarri zuen hipoteka-maileguaren edo -kredituaren hartzekoduna denarekin lotutako enpresek etxebizitzaren gainean egiten dituzten eskualdatzeetan, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak edo hura ordeztzen duen arauak jasotako 'enpresa lotu' kontzeptuari jarraituz”.

**Hamabost bis.** Hamaseigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Erosketa-aukerarik gabeko errentamendu-araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileentzako diru-laguntzak, bai eta 60 urte baino gehiagoko edo desgaitasun bat duten pertsonentzako alokairu-apartamentu babestuen sustatzaileentzakoak ere, eta erabilera-lagapeneko araubidekoak diren babes ofizialeko etxebizitzak.

1. Erosketa-aukerarik gabekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaituentzako apartamentu babestuen sustatzaileek honako diru-laguntza hauek lortu ahalko dituzte:

a) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 23.

b) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 35, baldin eta sustatzaileak eskatu egiten badu etxebizitza babestuen babes-araubide aplikagarriaren iraunaldia 30 urtekoa izatea.

Letra honetan ezarritako portzentajea ezin izango zaio batu a) letran ezarritakoari.

2. Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuek, erabilera-lagapeneko araubidekoak diren babes ofizialeko etxebizitzak sustatzen badituzte, kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitza babestuen (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezio teorikoaren % 25eko diru-laguntza jaso ahalko dute, beti ere elkartearen lehendabiziko bazkide bakoitzaren familiaren diru-sarrera haztatuak txikiagoak badira babes ofizialeko etxebizitza erosteko diru-laguntzak eskuratu ahal izateko eskatzen direnak baino. Diru-laguntza hau bateraezina izanen da foru lege honen hemezortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin.

3. Diru-laguntzak behin-behineko kalifikazioan erabakiko dira. Behin-behineko kalifikazioa izan ondoren, sustatzaileak edo elkarteak diru-laguntzaren % 50eraino jaso ahalko du, onetsitako diru-laguntzaren zenbatekoa estaliko duen abala aurkeztu ondoren. Diru-laguntzaren gainerakoa behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da.

4. Baldin eta sustatzaileak edo elkarteak errentamendu-araubidea edo erabilera-lagapeneko araubidea aldatu egiten badute etxebizitzak babes-araubideari loturik dirauen bitartean etxebizitza-arloan eskudun den departamentuak horretarako baimenik eman gabe, jasotako kopuru guztiak itzuli beharko dituzte, horrek ezertan galarazi gabe bidezkoak diren bestelako zehapen batzuk eta legezketasuna berrezartzeko ekintzak.

5. Xedapen gehigarri honetan jasotako diru-laguntza lortu ahalko dute behin-behineko kalifikazioa noiztik eta foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera eskatzen duten babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenek bakarrik. Beharrezkoa izanen da kasuko etxebizitza-sustapena egitea espedientearen behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean 100 alokairu-eskaera baino gehiago (etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldako datuen arabera) dauden udal batean, salbu eta sozietate publikoek edo toki entitateek sustaturiko etxebizitzaren kasuan edo toki entitatearen Udalak etxebizitza-sustapenaren aldeko ebazpena emanen badu.

6. Xedapen gehigarri honetan agindutakoa erregelamendu bidez garatu edo aldatu ahalko da”.

Hamasei. Hemeretzigarren xedapen gehigarria eransten da. Testu hau izanen du:

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoaren (OAEAP) ordezkari Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazle berria erabiltzea. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, ulertuko da Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoaren (OAEAP) aipamen guztiak, foru lege honetan eta etxebizitzari buruzko gainerako foru arauetan jasotakoak, Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazle berriari buruz eginak direla”.

Hamazazpi. Hogeigarren xedapen gehigarria eransten da. Testu hau izanen du:

“Hogeigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestuaren sustatzaileen betebeharra, gabezia edo akats ezkutuko errekerimenduei erantzuna ematekoa.

Etxebizitza babestuen sustatzaileek erantzuna eman beharko diete etxebizitzaren arloko eskumenak dituen departamentuak etxebizitza babestuen eraikuntzako gabezia edo akats ezkutukoengatik egindako errekerimenduei, behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita hurrengo hiru urteetan salatzen badira eta eraikuntzaren antolamendua oinarritzko legedian aipatzen diren aseguruak instalatu ez badaude”.

Hemezortzi. Hamaikagarren xedapen iragankorra eransten da. Testu hau izanen du:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Pertsona juridikoen izaera duten etxebizitza-titularrak diren bizigarritasun-zedula berritzeko betebeharraren araubide iragankorra.

Pertsona juridikoen iraungitako bizigarritasun-zedularen berritzea eskatu beharko dute, haiek jabari osoa, partaidetzaren gehiengoa edo erabilerrarako edo gozamenerako eskubide erreal bat duteneko etxebizitzaren kasuan, foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean”.

Hemeretzi. Hamabigarren xedapen iragankorra eransten da. Testu hau izanen du:

“Hamabigarren xedapen iragankorra. Etxebizitza-parkearen diagnostikoa, eraikuntza-irizpideetan eta irizpide sozioekonomikoetan oinarritua.

Urtebeteko gehieneko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzaren mapa bat eginen du, eraikinen antzinateari, haien egoerari eta haietan bizi diren pertsonen ezaugarri sozioekonomikoei buruzko irizpideetan oinarrituta, eta haren xedea izanen da eremu behartsuak edo zaharberritze-premia handiena dutenak zehaztea, eta, aldi berean, zaharberritze babestuko jarduketan etorkizuneko plangintzarako tresna bat izatea”.

Hogei. Hamahirugarren xedapen iragankorra eransten da. Testu hau izanen du:

“Hamahirugarren xedapen iragankorra. Eraikinen ebaluazioko txostenaren derrigortasuna mailaz maila ezartzeko programa, familia bakarreko etxebizitzaren kasuan.

a) 2018ko abenduaren 31n 100 urteko edo gehiagoko antzinatea duten familia bakarreko etxebizitzek eraikinen ebaluazioa egin beharko dute, halako moduz non kasuko txostena 2020ko lehen eguna baino lehen edukiko baitute.

b) 2019ko abenduaren 31n 75 urteko edo gehiagoko antzinatea duten familia bakarreko etxebizitzek eraikinen ebaluazioa egin beharko dute, halako moduz non kasuko txostena 2021eko lehen eguna baino lehen edukiko baitute.

c) 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera 75 urteko antzinatea duten familia bakarreko etxebizitzek eraikinen ebaluazioa egin beharko dute, halako moduz non kasuko txostena edukiko baitute antzinate hori hartu duten datatik urtebete iragan baino lehen”.

**2. artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu batekin aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Bat. 68. quinquies artikulua gehitzen da. Honako testu hau izanen du:

“68. quinquies artikulua. Etxebizitza bat alokairu-araubidean eskuratzea errazteko kenkariak.

A. Emantzipaziorako errentamenduagatik kenkaria.

1. Behin dagokion kuota diferentziala finkatuta, ohiko bizileku iraunkorra duen etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren titularrak den subjektu pasiboak, 23 urte eta 30 urte (horiek barne) bitarte dituenak, eskubidea izanen du errentamenduagatik zergaldian ordaindu duen errentaren % 50eko kenkaria aplikatzeko, hilean 250 euroko gehienez mugarekin.

2. Kenkariaren zenbatekoa aurrez ordainduko da, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan hiruhileko bakoitzean ordaindutako errenta justifikatu ondoren.

3. Subjektu pasiboak ez du kenkari horretarako eskubiderik izanen baldin eta haren errentak, salbuetsiak barne, 20.000 euro baino gehiagokoak badira, eskatzailea familia-unitate bateko kidea ez bada banaka zenbatuta, edo, bestela, 30.000 euro baino gehiagokoak badira, familia-unitateko kide guztien errentak batera hartuta.

Horretarako, kontuan hartuko da zein diren lortutako diru-sarrerak, adieraziak zerga-oinarriaren zati orokorraren eta errenta salbuetsien batura gisa, halako zergaldian lorturikoak non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epe arrunta amaitu baita etxebizitzarloan eskudun den departamentuari kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaera eginiko datan.

B. Etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatikoko kenkariak.

1. Behin kasuko kuota diferentziala finkatuta, bere ohiko bizileku iraunkorra denaren errentamendu-kontratu baten titularrak den subjektu pasiboak, bere familiaren diru-sarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,7 halako baino txikiagoak badira, kenkari baterako eskubidea izanen du:

a) Zergaldian ordaindutako errentamenduerrentaren % 50ekoa, baldin eta etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuan izena emanda badago urtebeteko edo gehiagoko antzinatasun etengabearekin, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

b) Zergaldian ordaindutako errentamenduerrentaren % 60koa, baldin eta zergaduna errentamendurako gizareratze-etxebizitzaren programako onuraduna bada, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/213 Foru Dekretuaren 72. artikuluan edo haren ordezkio arauan xedatutakoaren arabera, urte natural bakoitzaren urtarrilaren 1ean bi urte edo gehiagoko antzinatasuna izanez gero. Kenkari horretaz baliatu izana ez da eragozpena izan gero Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 74. artikuluan jasotako gizarte integrazioarako babes ofizialeko etxebizitzaren errentamenduaren kasurako aurreikusitako diru-laguntzetarako eskubidea izateko”.

2. Kenkari hauen zenbatekoa aurrez ordainduko da, etxebizitzaren arloko eskumena duen

departamentuan hilabete bakoitzean ordaindutako errenta justifikatu ondoren.

3. 1.a) apartatuan ezarritako kenkariak ezin izanen ditu honako muga hauek gainditu:

a) Hilean 300 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbatekoa baino gutxiagoak badira.

b) Hilean 250 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen zenbateko berekoak edo handiagok badira eta adierazle horren zenbatekoaren 1,4 halako baino txikiagoak badira.

c) Hilean 200 euro, subjektu pasiboaren familia-dirusarrera haztatuak Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,4 halako edo gehiagokoak badira eta adierazle horren 1,7 halako baino txikiagoak badira.

4. 1.b) apartatuan ezarritako kenkariak ezin izanen du hilean 360 euroko zenbatekoa gainditu. Kenkari hori aplikatzeko gehieneko epea ondoz ondoko bi urtekoa izanen da.

5. Familia-dirusarrera haztatuak kalkulatzeko, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren II. eranskina edo haren ordezkio araua aplikatuko dira, eta aintzat hartuko diren errentak dira halako zergaldian lorturikoak non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epe arrunta amaitu baita etxebizitza arloko departamentu eskudunari kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaera eginiko datan.

C) Artikulu honetako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak.

1. Kenkari horietatik edozein aurkezteko eskubidea izateko, subjektu pasiboak etxebizitzaren arloko eskumenak dituen departamentuari eskatu beharko dio dagokion kenkaria modu aurreratuan ordaintzeko, D letran ezarritako prozedurari jarraituz. Kenkaria modu aurreratuan ordaintzea eskatzen ez bada, ez da kenkaria aplikatzeko eskubiderik sortuko. Kenkari hori aplikatu dela ulertuko da lehen ordainketa aurreratua kobratzen den unetik.

2. Subjektu pasiboak frogatu beharko du honako gutxieneko diru-sarrera hauek lortu dituela halako zergaldian non pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epe arrunta amaitu baita etxebizitza arloko departa-



mentu eskudunari kenkariaren ordainketa aurreraturako eskaera eginiko datan:

a) Emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkaria: 3.000 euro, zeinak honela adierazitakoak izanen baitira: zerga-oinarriaren zati orokorra gehi errenta salbuetsiak.

b) Etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatiko kenkariak: errentamendu-modalitateko etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena emateko exigitutako diru-sarrerak; edo, errentamendurako gizarteratze-etxebizitzen programan, programa horretara sartzeko exigitutakoak.

3. Subjektu pasiboak edo, kasua bada, familia-unitateko kide guztiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Beste etxebizitzaren baten edo haren zati alikuotaren jabariaren edo hura erabili edo gozatzeko eskubide erreal baten titularra ez izatea, salbu eta, batera bildurik, honako bi baldintza hauek betetzen badira:

a') Etxebizitza hori egokia ez izatea familia-unitatearen beharrezanetarako, Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera.

b') Etxebizitzaren edo haren zati alikuotaren eskaintza onartzea, eskaintza hori Nafarroako Gobernuari, eginkizun hori esleitzen zaion Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumental bati, kokaturik dagoen udalerriari edo azken horren sozietate instrumental bati eginikoa bada, Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, eskualdatzeak sortutako diru-sarrerak 60.000 eurokoak edo txikiagoak direnean, etxebizitzaren arloko foru araudiak xedatutakoaren arabera kalkulatuak.

b) Etxebizitza baten edo haren zati alikuotaren gaineko jabaria edo erabilera edo gozamenerako eskubide erreal bat eskualdatu ez izatea azken bost urteetan, halako moduz non eskualdatze horrek 60.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak sortuko zituen, horiek etxebizitzaren arloko foru araudian xedatutakoaren arabera kalkulaturik.

c) Aurrezkiaren zati bereziko diru-sarrera gisa aitortu ez izatea 5.000 euro baino gehiagoko zenbatekorik, gaitasun ekonomikoaren baldintza betetzen dela frogatze aldera aurkeztu behar den pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko aitortpenean.

d) 90.000 euro baino gehiagoko ondasunik, eskubiderik edo aktibo finantzariorik ez edukitzea,

salbu eta enpresa- edo lanbide-jarduera bati atxikita daudenean.

e) Odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen edo bigarren graduako ahaidetasunik ez edukitzea kontratuaren titularra den pertsona fisiko errentatzailearekin, edo haren bazkideekin edo partaidetzadunekin, baldin eta pertsona juridiko bat bada.

4. Subjektu pasiboa ezin izanen da izan azpierreantatzailea edo azpierreantaria, halako etxebizitzarena zeinaren errentamenduagatik eskatzen baitu artikulua honetan araututako kenkarietakoren bat.

5. Aipatutako etxebizitzaren alokairu-prezioa ezin izanen da izan hilean 650 euro baino gehiagokoa.

6. Artikulu honetan araututako kenkariak elkarren artean bateraezinak izanen dira, eta bateraezinak, halaber, 62.2 artikuluan ezarritako etxebizitzaren alokairuagatiko kenkariarekin.

Artikulu honetan araututako kenkarietatik edozein eskatzen eta lortzen baldin bada, ezin izanen zaio horri uko egin zergaldi horretan bertan.

7. Etxebizitza bat bera dela-eta emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkari bakarra eman ahalko da. Hala eta guztiz ere, banakako zenbatekoa zehazteko, eskatzaile bat baino gehiago badago errentamendu-kontratuaren titular dena, kasuko kenkariaren zenbatekoa horien guztien artean hainbanatuko da, hileko errentaren ehuneko berrogeita hamar zatituz, edo, kasua bada, 250 euroko muga, kontratuaren titular guztien artean, berdin delarik horiek guztiek betetzen dituzten edo ez dituzten betetzen kenkari hori eskuratzeko baldintzak.

8. Etxebizitza bera dela eta, etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatik kenkari bakarra eman ahalko da, eta horren onuradun izan ahalko da familia-unitate bakar bat edo banakako eskatzaile bat soilik.

9. Etxebizitza bera dela eta, soilik eman ahalko da, edo etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatiko kenkari bat, edo emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkari bat, baina ez biak aldi berean.

10. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu baten bidez aldatu ahalko dira artikulua honetan aurreikusitako kenkariaren portzentaje, zenbateko eta ordainketa aurreratuko ordainketa-epeak. Halaber, haiek eskuratzeko gutxieneko eta gehieneko diru-sarreraren baldintzak aldatu ahalko dira, bai eta



etxebizitzaren errentamenduagatik ordaindutako hileko errentaren gehieneko zenbatekoa ere.

D. Kenkariaren ordainketa modu aurreratuan egin dadin eskatzeko prozedura.

1. Emantzipaziorako errentamenduagatik kenkariak ordaintzeko eskaerak aurkeztu ahalko dira Nafarroako Gobernuaren etxebizitzarako web-atarian horretarako gaitutako plataforma informatikoan soilik ([www.vivienda.navarra.es](http://www.vivienda.navarra.es)), hartan eskatutako prozesuaren arabera. Gainerako kenkarietarako, administrazio-prozedurari buruzko arauetan orokortasunez xedatutakoari begiratu beharko zaio.

2. Eskaerak ebazteko eskumena etxebizitzaren arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiari dagokio, eta bera izanen da zioak emanda ebartziko duena eta ebazpen hori eskaera aurkeztu denetik hiru hileko gehieneko epean jakinaraziko duena. Halakorik ez badago, eskaera ezetsi dela joko da.

3. Kenkarirako eta haren ordainketa aurreraturako eskubidea urtebeterako emanen da, kenkariaren ordainketa eskatzeko unean indarrean dagoen errentaren hileko zenbatekoaren arabera; hori, halere, ez da eragozpena izanen eskaera berritzeko edo epe hori iragan ondoren beste eskaera bat aurkezteko.

4. Kenkariaren ordainketa aurreratua mugageneraturiko epeka eginen da, errentamenduaren ordainketa justifikatu ondoren. Haren banku-ordainketa exigituko da, eta horretarako nahitaez banku-ordainagiriaren edo -transferentziaren kopia digitalizatua aurkeztu beharko da, zeinean zehaztu beharko baitira errentatzailearen identifikazioa, etxebizitzaren helbide fisikoa eta ordainketa zein aldiri dagokion.

5. Emantzipaziorako errentamenduagatik kenkariaren ordainketa hiruhileko mugageneratutaka eginen da, urtarrilaren, apirilaren, uztailaren eta urriaren lehen hamabostaldian. Kenkarirako eta haren ordainketa aurreraturako eskubidea galduko da alokairuaren ordainketa hurrengo hiruhilekoaren lehen hilabetearen lehen egunaren aurretik justifikatzen ez den hilabeteei dagokienez.

6. Etxebizitza eskuratzeko errentamenduaren kenkariaren ordainketa hilero eginen da. Kenkarirako eta haren ordainketa aurreraturako eskubidea galduko da alokairuaren ordainketa hurrengo hilabetearen lehen egunaren aurretik justifikatzen ez den hilabeteei dagokienez.

7. Urte bakoitzeko urtarrilean etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak Nafarroako Foru Ogasunari igorriko dio kenkarirako eskubidea

duten pertsonen urteko zerrenda, bai eta modu aurreratuan ordaindutako zenbatekoena ere.

E. Kenkarietarako eskubidea azkentzea.

1. Artikulu honetan ezarritako baldintzak urratzeak edo aldatzeak berekin ekarriko du kenkarietarako eta haiek modu aurreratuan jasotzeko eskubidea azkentzea.

2. Kenkarirako eta haren ordainketa aurreraturako eskubidea aitortzeko organo eskudunak zioak eta guzti ebartziko du eskubide horren azkentzeari buruz, interesdunari entzunaldia eman ondoren. Organo horrek azkentzearen eraginen datari buruz erabakiko du kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarren arabera.

Baldin eta zergaldian jasotako ordainketa aurreratuak kasuko kenkari fiskalaren zenbatekoa baino gehiagokoak izan badira, subjektu pasiboak bere egoera erregularizatu beharko du zerga horren autolikidazioaren kuota diferentzialean, ezbetetzea gertatu den zergaldiari dagokionean, eta autolikidazio horretan jaso beharko ditu, halaber, kenkaria modu aurreratuan kobratu zuen unetik sortu diren berandutze-interesak.

Zerga horren autolikidazioa egiten ez duten subjektu pasiboek erregularizazioa eta itzulketa etxebizitzaren arloko eskumenak dituen departamentuak ezarritako moduan egin beharko dituzte”.

Bi. Xedapen iragankor bat eransten da, hogeita zazpigarrena.

“Hogeita zazpigarrenen xedapen iragankorra. Etxebizitza eskuratzeko errentamenduaren kenkariaren aplikazioa 2019an eta 2020an.

2019an eta 2020an, subjektu pasiboek etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatik kenkaria eskatu ahalko dute soilik aipatutako urteetako bakoitzaren urtarrilaren 1ean bi urte baino gehiago etenik gabe inskribaturik egon badira etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan, Errenta Egokiagatik Erosahalmen Nahikotasuna (ERREGEROSNA) adierazlearen 1,7 halako baino familiako diru-sarrera haztatu txikiagoak badituzte eta beren kargura seme-alaba adingabeak badituzte, edo epai bidez guraso-ahal luzatua edo birgaitua duten desgaitutako seme-alaba adindunak, zentsuko inskripzioan data hori baino lehenago ageri direnak”.

**3. artikulua.** 61/2013 Foru Dekretua aldatzea, irailaren 18koa, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen.

Bat. 8. artikulua 2. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Foru dekretu honetan aurreikusitako ondo-riotarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena zerga-administrazio eskuduntan aurkezteko erreferentziako datak foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritakoak izanen dira, erreferentzia eginez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea amaitu den azken zergaldiari”.

Bi. 27. artikuluan 2. apartatua aldatzen da. Honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Eskatzaileen familiaren diru-sarrerara haztuaren arabera emanen dira diru-laguntzak. Kontuan hartuko da zenbat aldiz diren IPREM halakoa izan diren diru-sarrerak kasuko eskaera egin arte pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea amaitu zaion azken zergaldian”.

Hiru. 28. artikuluko 5. puntua kentzen da; honako hau zioen:

“5. Babes ofizialeko etxebizitzaren eta alokairu-poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendurako kontratuak berritu edo luzatzearen kasuan, betiere errentariak gizarteratze-errentaren edo horren ordezkorearen hartzaile badira, errentaren % 75eko diru-laguntza onetsiko da urtealdi berrirako”.

**4. artikulua.** Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuaren aldaketa.

7. artikuluan 3. apartatua aldatzen da; honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“3. Ahalmen ekonomikoaren gaineko betekizun horiek betetzen direla frogatu beharko da foru dekretu honen 2. artikuluan aipatzen diren egunetan. Betiere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea bukatua den azkeneko zergaldia hartu behar da kontuan”.

**Lehen xedapen gehigarria.** Nafarroan etxebizitzarako eskubide subjektiboaren gogobetetasunari buruzko txostena.

1. Foru lege honetan aurreikusitako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteko, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak urteko txosten bat, legeak dituen neurrien norainokoari, onuradunei eta neurrietara bideratutako baliabideei buruzkoa, prestatuko du eta Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, hurrengo urteko lehen lauhilekoan.

2. Aipatu txostenak alderdi hauei buruzko informazioa behintzat bilduko ditu:

a. Zenbat diren alokairuko etxeak, haien errentek foru lege honetan aurreikusitako PFEZaren kenkari fiskalen laguntza dutenak.

b. Zenbat pertsona edo familia unitate diren laguntza horien onuradun, ERREGEROSNA adierazlearen mailen arabera bereizita.

c. Batez besteko kostuak, pertsona edo familia unitate bakoitzeko, eta guztirako kostuak, Foru Ogasunerako.

d. Aurkeztutako erreklamazio, kexa edo iradokizunak eta administrazio eskudunak emandako erantzuna.

e. Etxebizitza Hutsen Erregistroaren garapena, horretan barne etxebizitzak eta haien ezaugarriak, eskualdeka.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Testu bategina.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio onets dezan, foru lege honek indarra hartu eta hogeita lau hilabeteko epean, testu bateratu bat, zeinaren bidez integratuko baitira, behar bezala erregularizatuak, argituak eta harmonizatuak, maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, eta jarraian zerrendatzen diren gainerako arauak, bai eta haiek aldatzeko onetsi diren lege-mailako arauak ere, eta haien esparru materialari eragin diezaioketenak, zeinak, kasua bada, onetsi baititezke Nafarroako Gobernuak egoki den testu bateratua onetsi aurretik, aurreikuspen hori jasotzen dutenean:

– Hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen 11. artikulutik 17.era bitartekoak eta lau garren xedapen gehigarria.

– Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria.

– 24/2013 Foru Legea, uztailearen 2koa, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa.

– Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrena.

– 27/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzen duena.

– 22/2016 Foru Legea, abenduaren 2koa, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

– Nafarroako 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 20/2017 Foru Legeko hogeita seigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak.

– Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen duen Foru Legea.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.